# ¡RAKURRi, ETA ONDO PASA!




LIBURUA

## 'Iratxoaren txanoa'

Goiz eder batean, basoan barrena pasieran zebilen iratxo bat, eta bat-batean, zuhaitz baten adarrak txanoa burutik bota zion. Baina iratxoa ez zen ohartu, eta txanoa basoan galdu zuen. Igel batek txano gorria ikusi, eta bere etxe bihurtuko du. Ondoren, sagu bat iritsiko da leku eske. Igelak sartzen utziko dio. Atzetik, erbia, trikua, belea... etorriko dira txano barruan sartzeko asmoz. Egongo al da animalia guztientzako tokia?

**Brigitte Weninger**
**John A. Rowe**
Argitaletxea: **Ttarttalo**




LIBURUA

## 'Gabon kontakizuna'

Jesusen jaiotzaren kontakizuna, uso baten eta bere kumearen begitik. Usoa, Nazaretera joango da Gabriel aingerua Mariari nola azaltzen zaion ikustera. Gero, hilabetero joango da Jose eta Maria nola dauden ikustera. Betleemerako bidean jarraituko die ondoren, eta artzainei eta hiru erregeei jarraituko die, guztiak Jesus jaio den askara iristen diren arte. Egun handia.

**Patxi Ezkiaga**
**Cherie Zamazing**
Argitaletxea: **Ibaizabal**

DENBORA-PASAK

## 1. Giltzak

Soilik bi giltzak irekitzen dute etxeko atea. **Bost hauetatik zein dira berdinak?**



## 2. Harri-jasotzaileak

Urte berri, apustu berri. Beti bezala jarraitzen dute Martinek eta Pellok.

**Atera kalkuluak nork irabazi duen jakiteko.**



| | 150 | 225 | 100 | 125 |
|---|---|---|---|---|
| Martin | 4 aldiz | 9 aldiz | 3 aldiz | 7 aldiz |
| Pello | 11 aldiz | 3 aldiz | 8 aldiz | 2 aldiz |

**Erantzunak**

**1.-** Giltza gorriak eta horiak irekitzen dute atea
**2.-** Martinek 3.800 kilo altxa ditu eta Pellok 3.375 kilo. Beraz, Martin garaile.